

Ordizian, 2014ko ekainaren 26a UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M ^a .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ taldea
Judith Otegi López de Murillas	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.



BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2014ko maiatzaren 29an egindako Plenoaren akta onartzea.
- 2.- Inbertsioei lotutako kreditu aldaketa espedientea.
- 3.- Dekretuaren bidez onartutako kreditu aldaketen kontu ematea.
- 4.- "Iberdrola Distribucion Electrica S.A.U." enpresak HIE-22 "San Juan" 526 m2ko azalera duen lursaila desafektatzeko eskaera.
- 5.- Aparkaleku mugatuak arautzen duen Ordenantzaren aldaketa.
- 6.- Beasaingo Udalak Drogomenpeketasun prebentziorako zerbitzua bere gain hartzen duela eta, M.C. teknikariaren lanaldia murrizteko Alkatetzaren Dekretuaren bitartez hartutako erabakia berrestea.

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

EHGAM Elkarreak ekainaren 28an (Gay, Lesbiana eta Transexualen Eskubideen Nazioarteko Egunean) udaletxeko balkoian "Hiruki Arrosa" ipintzea.

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:30 etan

AMAIERA: 20:00etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2014ko maiatzaren 29an egindako Plenoaren akta onartzea

Proposamena

2014ko maiatzaren 29ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Inbertsioei lotutako kreditu aldaketa espedientea

Proposamena

2014ko inbertsioen exekuzio maila aztertu da eta kasu batzuetan behar berriei aurre egitea tokatzen da eta beste kasuetan soberakina nabari da, aurreko beharrei erantzuna emateko adina.

Ondoko kreditu transferentziak onartzea proposatzen da:



2014ko AURREKONTUA
KREDITU-TRANSFERENTZIEN .ESPEDIENTEA
KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
KAPITAL ERAGIKETAK		
623.222.11.04	Tresneria. Udaltzaingoa	227,54
601.222.12.01	Trafiko aldaketa	24.000,00
649.222.12.01	Alde Zaharreko trafikoa kudeatzeko programa	459,80
623.422.12.04	Tresneria. Urdaneta lkastetxea	135,27
622.435.00.02	Biltegi berriaren prestaketa	4.224,56
623.442.20.04	Tresneria. Kale Garbiketa	506,44
622.443.00.01.2013	Kolonbarioen partzela prestaketa	682,44
622.451.10.04.2013	Musikoen lokalen prestaketa	1.500,00
622.451.10.04	Musikoen lokalen prestaketa	684,59
623.451.10.02	Barrenako Jauregian Wifi jartzea	5.728,14
622.455.10.01	Euskera bulegoaren prestaketa	5.000,00
623.751.00.02	D'elikatuzen GSM/GPRS sistemaren instalakuntza	356,95
		3.505,73
KAPITAL ERAGIKETAK		
622.413.30.01.2013	Komunen birmoldaketa	4.000,00
601.511.00.02	Obra txikiak	24.000,00
601.511.00.08	Zine ondoko eskaileren konponketa	8.000,00
601.511.00.09	Domingo Unanue plazako zuloaren konponketa	7.505,73
		43.505,73

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du kontu hartzaileak espediente honi buruzko informazioa eman zuela 2014-06-18ko Plenorako Gaien Batzordean.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Dekretuaren bidez onartutako kreditu aldaketen kontu ematea.

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua araberako, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.

Apirileko Plenoan ordurarteko erabakien kontua eman zen eta, ondoren hartutako erabakiak hauek dira:

Kredituen transferentziak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
6	486	16.000,00
7	491	11.500,00
Kreditu gehigarriak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
6	437	36.618,77
Kreditu eransketak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
Kredituen gaikuntza		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
4	386	5.700,00

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du kontu hartzaileak espediente honi buruzko informazioa eman zuela 2014-06-18ko Plenorako Gaien Batzordean.

Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- "Iberdrola Distribucion Electrica S.A.U." enpresak HIE-22 "San Juan" 526 m2ko azalera duen lursaila desafektatzeko eskaera.

Proposamena

IKUSITA.

2002ko irailaren 12an, Ordiziako Udalak Iberdrola Distribución Electrica S.A.U. enpresari eskatu zion energia elektrikoa ekoiztu eta banatzeko Ordiziako subestazioa lekuz aldatzeko. Subestazioa gaur egun Ordiziako San Joan auzoan dago, Udalak sustatutako 22-San Joan Hirigintza Interbentzio Eremuaren eraginpean.

Subestazio berriaren kokalekua barneratzeko xedearekin eta Ordizia Lantzen S.A.k sustatutako "22 San Joan" Hirigintza Interbentzio Eremuaren Birpartzelazio Proiektuaren bidez, 750,32 m2ko erregistro-azalera duen h.10.1 lursailaren (jabetza pribatuko energia-ekipamendua) eskriturak egiteari ekin zitzaion Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.ren mesedetan.

Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.ri emandako azalera ez dela behar bezain handia azpiegitura bertan kokatzeko. Ordiziako Udalak "22 San Joan" HIEren Plan Partziala eta dagokion birpartzelatze proiektua aldatu du energia ekoizteko enpresari 1.292,97 m2ko azalera esleitzeko (eusteko horma eta harri-lubeta barne). Horrekin batera, jabari publikoko 664,55 m2ko lursailaren (laprandurak barne) erabilera eskusiboa eta izaera mugagabekoa bultzatu du aipatutako instalazioen sarbiderako, errodamendurako eta jardueretarako, eta beraz, energia ekoitzen duen enpresak eremu hori hesitu dezake, subestazioaren lekualdaketa eta exekuziorako Ordizia Lantzen S.A.k eta Iberdrola Distribución Electrica S.A.U.k 2009ko abenduaren 1ean sinatutako Hitzarmenean zehazten den moduan.

Instalazioa eraikitzeko lanak amaitzen direnean eta kontuan izanda instalazioa asentatu egiten dela, eta Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.ren jabetzakoak direla lursail batzuk (750 m2) eta beste lursail batzuk udal jabari publikokoak direla, egoera hau erregularizatu behar izan da. Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.ren idatziaren bitartez Ordiziako Udalari ondorengo eskaera egin dio: Udal honen jabari publikoko 526 m2ko lursailaren desafektazioa egiteko beharrezkoak diren tramiteak bideratzeko, eta horrela, lursailak duen jabari publikoko izaera galtzean, Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.ren aldetik dagokion desjabetze-espeditari hasiera eman ahal izango zaio, geratzen den lur-zatia bereganatu eta adskribatu ahal izateko.

Udal Arkitektoaren aldeko txostena, 2014ko ekainaren 13ko txostenean oinarrituta.



Udal Idazkariaren aldeko txostena, 2014ko ekainaren 13ko txostenean oinarrituta.

AKORDIORAKO PROPOSAMENA:

Toki Erakundeetako Ondasunen ekainaren 13ko 1372/1986 Araudiaren 8. artikulua araberak, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47. artikuluan ezarrita dagoen moduan Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin, Ordiziako Udalaren jabari publikoko 526 m²ko lursailaren desafektazio espedienteak onartu da hasierako izaerarekin, eta hilabeteko epean informazio publikorako tramitea betetzea egokitzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki-oholean eta abar iragarkia ipiniz.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: gehiengo osoa.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Aparkaleku mugatuak arautzen duen Ordenantzaren aldaketa

Proposamena

Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen indarreko Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantzaren 3. artikulua zehazten du zein kaletan dagoen aparkaldi mugatua eta zenbat aparkaleku dauden mugatuta. Eremu horietan aparkatzeko ordubeteko gehienezko muga ezarriko da, Garagartza Plazan izan ezik, bertan gehienez ordu erdiko denbora tartean aparkatuta utzi ahal izango da ibilgailua.



Aipatutako Ordenantzaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, osoko bilkuraren akordio bidez eta Ordenantzak aldatzeko tramiteak bideratzeko beharrik ez dagoenez, aldez aurretik dagozkion txosten teknikoak edukita, dagoeneko zehaztuta dauden kaleetarako aparkaldi mugaturako egunak eta orduak aldatu ahal izango dira.

Halaber, eta prozedura berdinari jarraiki, 3. artikuluan adierazi diren aparkaldi mugatuko bideak aldatu ahal izango dira, gehiagotuz edo murriztuz, eta baita berriro finkatu edo kendu ere.

Espedientearen barnean dago Udaltzainburuaren txostena esanez azken trafiko aldaketak eragina izan duela hainbat aparkaleku mugatuetan. Gainera, Garagartza plazan zegoen gunea desagertu da.

2014 ekainaren 9ko Zerbitzu Delegazioaren aldeko txostena ikusita Osoko bikurarako gaien Batzordeak honakoa proposatzen du.

AKORDIO PROPOSAMENA

* Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen indarreko Ordenantzaren 3. artikulua aldatzea, honakoaren arabera:

3. Artikulua

Honakoa dioen tokian:

Bide urdinaren barruan sartutako kale batean ibilgailu bat gehienez ere ordubetera aparkatu ahal izango da, Garagartza Plazan izan ezik. Bertan 30 minutuan izando da.

Denbora hori igarota, ezingo da inolaz ere kale horretan bertan aparkatu ibilgailua.

Ondokoak izendatzen dira bide urdinak, Ordenantza honek eragiten dituen legezko aparkalekuak adieraziz:

- 1.- Gudarien Etorbidea (3 plaza, 8 Barandiaran plaza aldera eta 5 Barrena parke aldera)*
- 2.- Garagartza plaza (6 plaza)*
- 3.- Urdaneta kalea 1 (plaza)*
- 4.- Joan Amezketa kalea (kale osoa)*
- 5.- Goierrri kalea (7 plaza)*
- 6.- Ordizia kalea (4 plaza)*
- 7.- Joseba Rezola pasealekua (31 plaza)*



Honakoa esan beharko luke:

Bide urdinaren barruan sartutako kale batean ibilgailu bat gehienez ere ordubetera aparkatu ahal izango da. Denbora hori igarota, ezingo da inolaz ere kale horretan bertan aparkatu ibilgailua.

Ondokoak izendatzen dira bide urdinak, Ordenantza honek eragiten dituen legezko aparkalekuak adieraziz:

- 1.- Gudarien Etorbidea (32 plaza, 13 Barandiaran plaza aldera eta 19 Barena parke aldera)
- 2.- Urdaneta kalea (6 plaza)
- 3.- Joan Amezketakalea (kale osoa)
- 4.- Ordizia >kalea (8 plaza)
- 5.- Joseba Rezola etorbidea (22 plaza)
- 6.- Goierri kalea (7 plaza, parkinaren barruan)

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo jn.

Adierazi du iaz hasi zirela mugikortasun plana lantzen eta lan horiek urtarrila-ekaina bitartean gauzatu zirela; azpimarratu du apirila aldera bi bilera ireki egin zirela gaiari buruz herritarren iritziak jaso eta herritarrei jakinarazteko; bestalde urria-azaroan Barrena jauregiko atarian jarri zirela planoak non jasotzen ziren landutako proposamenak, herritarrek ikusi, bozkatu eta iritziak eman ahal izateko; jarraitu du esanez horren barruan zetozen hainbat aldaketa apirilean jarri nahi zirela martxan eta horretarako hain zuzen ere apirilaren 3an Agenda 21eko monografiko bat egin zela gaia azaldu eta proposatutako trafiko aldaketei buruzko informazioa emateko, zuetariko asko bilera hartan izan zintaten, eta ez zen kontrako iritzirik jaso eta horregatik aldaketa horiek apirilean martxan jarri ziren, eta aldaketa horiek dira hain zuzen ere gaur hona ekartzen direnak onartzeko.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Alde: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)



Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Beasaingo Udalak Drogomenpeketasun prebentziorako zerbitzua bere gain hartzen duela eta, M.C. teknikariaren lanaldia murrizteko Alkatetzaren Dekretuaren bitartez hartutako erabakia berrestea.

EBAZPENA:

HONAKO HAU IKUSITA:

2013ko martxoaren 12ko B13/00232 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bitartez honako erabaki hau onartu zuela: "Maira Ceberio Yarza andrearen funtzionario bitarteko izaeraz egindako izendapena aldatzea, Ordiziako Udaleko Drogomenpeketasun Teknikari gisa lanaldi osora hutsik dagoen lanpostua betetzeko, eta horren ordezt, %59,26ko lanaldira izendatu Beasaingo Udalean Drogomenpeketasun Teknikari funtzioak betetzeko %33,26 lanaldira, baita %26ko lanaldia Psikologo funtzioak betetzeko Ordiziako San Jose Egoitzan, Udal Organismo Autonomoa, eta eragina Osoko Bilkurako akordioaren onepenenaren biharamunetik, hau da 2013-3-8tik.

Beasaingo Udalean egin beharreko lanaldiari dagokionez, aipaturiko erabakian honako hau aipatzen zela: "Beasaingo Udalak zerbitzuarekin jarraitzeko erabakia hartuta dauka, eta aurrekontuan ere 18.000,00 euroko kontsignazioa dauka langilearen kostuari aurre egiteko (%33,26a). Beasaingo Udalarekin adostasun batera iritsi beharko da, egoera honi behin-betiko soluzio bat bilatzeko.

San Jose Gizarte Dinamizatzailearen lanaldi murrizketaren ordezkapena egiten ari dela eta, une honetan eta ordezkapen hori bukatu arte San Jose Egoitzan %38ko lanaldia betetzen ari dela.

Balorazio Batzordeak 2014-03-26ko bileran honako erabaki hau adostu zuela: Drogomenpeketasun Teknikari postuaren amortizazioa zati honetan: %33,26^a (Beasaingo Udalean egiten dituen zerbitzuei dagokien dedikazio zatia).

2014ko ekainaren 11n Beasaingo Udalaren jakinarazpena iritsi dela non honela esaten duen: Beasaingo Udalak Drogomenpeketasun Prebentziorako zerbitzua bere gain hartzeko asmoa du, era berean esan, Maira Ceberio Prebentzioko teknikariarekin, bere lanaren bukaera ekainaren 30erako adostu dela.

Hori dena kontuan hartuta

HONAKO HAU ERABAKI DUT:



Lehena.- Moira Ceberioek une honetan Ordiziako Udalarekin duen lanalditik %33,26ko portzentaia gutxitu eta amortizatzea, dena 2014ko ekainaren 30eko ondorioekin; beraz %26ko lanaldiarekin geratuko zen Psikologo funtzioak betetzeko Ordiziako San Jose Egoitzan, eta une honetan %38koa da San Jose Egoitzan duen dedikazioa, San Jose Gizarte Dinamizatzaillearen lanaldi murrizketaren ordezkapena egiten duen bitartean.

Bigarrena.- Erabaki honen berri langileari eta Beasaingo Udalari ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Udal Osoko Bilkurak egiten duen hurrengo Batzarrean berrestea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza and.

Adierazi du ezagutzen zela Drogomenpekotasun prebentziorako teknikariak lanaldiaren zati bat Beasaingo Udalean egiten zuela, eta Beasaingo Udalak jakinarazi duela zerbitzu hau lizitaziora atera behar duela, eta nahiz eta langileari proposatu enpresa horren bitartez zerbitzuarekin jarraitu, langileak ez duela onartu eta horren arabera bere lanaren bukaera ekainaren 30erako adostu dela, horregatik erabakiaren bitartez proposatzen da teknikariak une honetan Ordiziako Udalarekin duen lanalditik %33,26ko portzentajea gutxitu eta amortizatzea (Beasaingo Udalean egiten dituen zerbitzuei dagokien zatia), eta geratuko litzateke %26ko lanaldiarekin Psikologo funtzioak betetzeko Ordiziako San Jose Egoitzan, eta une honetan %38koa da San Jose Egoitzan duen dedikazioa, San Jose Egoitzan Gizarte Dinamizatzaillearen lanaldi murrizketaren ordezkapena egiten duen bitartean.

Santamaria jn.

Galdetu du ea 2014-06-18ko Plenorako Gaien Batzordean informazio hau eman zen, zeren eta berak ez zuela ezagutzen Beasaingo Udalarekin duen lotura eteta geratu behar zenik, ezta Beasaingo Udalak enpresa bati esleitu nahi ziola zerbitzua, eta ezta teknikariak uko egin diola Beasaingo Udalak egindako eskaintzari.

Maiza and.

Erantzun dio Beasaingo Udalarekin harreman zuzena idazkariak izan duela, Ordiziako Udalak garbi esan ziola Beasaingo Udalari eta honela jasota dago 2013ko martxoaren 12ko Dekretuan, behin-behinekoz jarraituko zuela Ordiziako Udalarekin kontratatuta, baina Beasaingo Udala posizionatu egin beharko zela, eta azkenean berak bilatu beharko ziola soluzioa; bestalde gogorarazi du 2014ko urteko aurrekontua onartu zenean ere Beasaingo Udalari gai hau soluzionatzeko epea 2014ko ekainaren 30a arte jarri zitzaiola. Bestalde adierazi du Beasaingo jakinarazpena 2014ko ekainaren 11n iritsi dela, eta idazkaria



Beasaingo Udalarekin egon ondoren, orain dela aste bete jakin dela hemen azaldutako informazioa. Bukatzeko esan du lan kontratua Ordiziako Udalarekin duenez, lanaldiaren murrizketaren erabaki hau Ordiziako Udalarari hartzea dagokiola.

Idazkari jn.

Baieztatu du 2014ko ekainaren 11n iritsi zela Beasaingo Udalaren jakinarazpena, eta honela esaten duela hitzez-hitz: "Beasaingo Udalak Drogomenpekotasun prebentziorako zerbitzua bere gain hartzeko asmoa duela; era berean esan, Moira Ceberio Prebentzioko teknikariarekin, bere lanaren bukaera ekainaren 30erako adostu dela.

Baieztatu du orain dela aste bete jakin direla Beasaingo jakinarazpenaren inguruko gainerako xehetasunak, eta baita 2014-06-18ko Plenorako Gaien Batzorderako bilerako deialdiarekin batera banatu zela Dekretua, eta gai hau ez zela eztabaidatu.

Alkate jn.

Adierazi du bere ustez eta ondo ulertu badu Santamaria jaunaren kezka doala Beasainek zer jarrera hartu behar zuen ezagutzen ez zuelako, jarraitu du esanez berari ere kostatzen ari zaiola gai hau ulertzen, baieztatu du Maiza andrea langilearekin harremanetan dagoela, eta gaur ere egon dela berarekin, baina gaur ekarri den puntua dela Beasaini faborea egiteagatik orain arte egon den kontratazioaren portzentajea murriztea, eta hori egiten dela Beasaingo Udalaren jakinarazpena jaso ondoren.

Dubreuil jn.

Maiza andreari galdetu dio ea Beasaingo Udalarekin hitz egin duen zerbitzuaz, eta bere gain hartzeko asmoa badute, eskualde mailako zerbitzua izaten jarraituko luke?

Maiza and.

Ezetz erantzun dio, udal mailakoa soilik izango litzatekeela Beasainek esan zuela programa hori beraien gain hartzeko prest zeudela, baina ez zutela adierazi enpresa baten bidez egitea pentsatzen zutenik, Ordiziatik esan zitzaizela ekaina bukaerarako erabakiren bat hartu beharko zutela eta duela astebete jakin dutela enpresa baten bidez egiteko asmoa dutela; eta gaur bertan M.C. teknikariarekin hitz egindakoaren arabera ez duela egin zaion proposamena onartu eta kontratuaren deuseztea bien arteko akordioz egin dela.

Dubreuil jn.

Beasainen drogomenpekotasun arazo larria egongo omen dela adierazi du, zerbitzua enpresa batek eskaini behar badu; hasieratik egin diola kirrinka gai honek beti esaten zelako programa honetarako Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza desagertuko zela eta berak dakienaren arabera oraindik ez dute kendu diru-laguntza hau.



Maiza and.

Arautegia aztertu eta onartu zuten Legebiltzarrean duela denbora dezente, drogomenpekotasunaren prebentziorako zerbitzu programa hau ikastetxeetara bideratua dago hezkuntza arloari dagokionean eta osasun arloa Osakidetza kudeatzen du, nahiz eta Osakidetza duela denbora asko hasi behar zuen lanean, baina ez da hasi dagokion eginkizuna burutzen. Eta une honetan nahiz eta drogomenpekotasun teknikaririk ez izan, guri egokitzen zaizkigun zentroetan zerbitzua ematen da, eta horrek ez du lan-karga gehigarririk suposatzen beraientzako, eta hori guztia esaten du Dubreuil jaunaren aurrean, azkeneko honek esaten baitu gaur egun oraindik drogomenpekotasunaren prebentzioaren arloan lan handia dagoela.

Alkate jn:

Adierazi du eztabaida hau ez dela aztertutako gaiaren xedea, aztertzen ari garen gaia M.C.ren dedikazioaren murrizketa dela, Beasaindik jasotako jakinarazpenagatik, eta Drogomenpekotasunaren Prebentziorako Teknikari lanpostuaren beharraz hitz egiten jarraitu behar bada, gaia mahai gainean jarri beharko da eta dagokion eremuan aztertu.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Alde: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Abstentzioak:0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du presazko eraz aurkeztu delarik:

- **EHGAM Elkarrekin ekainaren 28an (Gay, Lesbiana eta Transexualen Eskubideen Nazioarteko Egunean) udaletxeko balkoian "Hiruki Arrosa" ipintzea.**

Puntu hau eguneko gai zerrendan aho batez sartzea onartu da.

Proposamena



EHGAM Elkarteak ekainaren 28an (Gay, Lesbiana eta Transexualen Eskubideen Nazioarteko Egunean) udaletxeko balkoian "Hiruki Arrosa" ipintzearen eskaria.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du EHGAM Elkarteak, besterik gabe eskatzen duela ekainaren 28an (Gay, Lesbiana eta Transexualen Eskubideen Nazioarteko Egunean) udaletxeko balkoian "Hiruki Arrosa" ipintzea.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Alde: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du

7.- Galde errekuak

Ez dira izan.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.